



ZALDIBIAKO UDALA
(Gipuzkoa)

Gaur, 2020ko uztailaren 22an, Zaldibiako Udalaren Ohiko Udalbatza bilkuran, Eraikitze Ordenantzak onartuko ditugu.

Ordenantza hauen lanketa hastea iazko iraileko Hirigintza Batzordean adostu zen. Hala, Zaldibiako Udalaren HAPOa, Eusko Jaurlaritzaren dekretu-proiektua, Euskal Autonomi Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren bizigarritasun baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak, eta beste hainbat Udaletako erreferentziak oinarri harturik osatu dira gaur behin-behineko onarpenera dakartzagun ordenantza hauek.

Hirigintza batzordearen baitan lan-saio berezia egin zen batzordekideez gain hainbat herritar gonbidatu eta deialdi irekia ere eginez. Covid-19aren pandemiak diseinatutako kronograma egokitu beharra ekarri badu ere, ekainaren 29ko Hirigintza Batzordean Osoko Bilkurara ekartzea adostu zen.

Pandemiak egutegia atzeratu bai, baina aldi berean ordenantza honen beharrari abiadura eman dio, etxeetan konfinatuta egon behar izan dugunaldiak argi erakutsi baitu edozein eraikin ez dela duin bizitzeko etxe. Segurtasuna, irisgarritasuna, ekoeraginkortasuna eta bizigarritasuna; Udaletik eta udalaz gaindi bultzatu beharreko oinarriak ditugu.

Bestetik, adierazpen hau onartzen dugunok, herri-guneko etxebizitza hutsak eta landa-eremuko baserriak berregokitu eta zahar-berritu daitezzen bultzatu nahi dugu eta norabide horretan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, Udaleko Hirigintza batzordean horretarako bideak jorratuz.

Zaldibian, 2020ko uztailaren 23an.
Zaldibiako Udalbatzak aho batez onartua